

Etixerik ez duten pertsonen portaeran generoa ezaugarri bereizgarria da

Emakumeen %57 inguruk GKEek zuzkitutako pisuetan egiten du lo eta gizonen kasuan ehuneko hori %23koa da.

EUSTATen datuen arabera, gizonen %40 inguruk eta emakumeen %25ak aterpetxeetan edo egoitzetan egin zuen lo. Ez-ohiko ostatuaren erabilerari dagokionez ere ezberdintasunak ematen dira: gizonen %15ak erabiltzen ditu ostatu mota horiek baina emakumeen %1 eskasak hartzen du bide bera.

Oro har, eta gizonak ez bezala, emakumeek ia ez dituzte erabiltzen arriskuan uzten dituzten aukerak (kalean, parke publikoetan, autoan lo egin...) eta denbora luzerako ostatuak erabiltzen dituzte gehienbat.

Emakumeek GKEek utzitako pisuak erabiltzen dituzte batez ere eta, bigarren aukera bezala, aterpetxeak edo egoitzak erabiltzen dituzte. Denbora luzeagoa eman dezaketen ostatuak nahiago dituzte: ordaindutako ostatuak, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako zentroak edo senide nahiz lagun baten etxeak.

Emakumeek gizonak baino era erregularragoan jaten dute

Gizonen %5 inguruk ez du bazkaltzen, eta %10 inguruk ez du afaltzen. Emakumeen kasuan, aldiz, ehuneko horiek ez dira %1era heltzen bazkariari dagokionez eta %4ra afariari dagokionez.

Bi emakumetik batek ostatua hartu duen pisuan jaten du, eta gizonen %8 inguruk erositako janariaren bidez eta eman zaizkion janarien bidez elikatzen da.

Gizonen %39ak esan du seme-alabak dituela, eta emakumeen %68ak gauza bera esan du.

Gizon erdiek baino pixka bat gehiagok esan dute ezkongabe daudela; egoera berean dauden emakumeen ehunekoa %38 da. Elkarrizketan bikotekidea dutela esan duten pertsonen artean hurrengo datua ere azpimarratu behar da: gizonen %70 eta emakumeen %19 egun ez da bikotekidearekin bizi.

Seme-alaben kopurua aintzat hartuta, emakumeen erdiak baino gehiagok bi edo hiru seme-alaba ditu eta egoera horretan dauden gizonen ehunekoa %35 da.


Gizon gehienak ez dira bere seme-alabekin bizi, aitzitik emakumeen %66 seme-alabekin bizi da.

Emakumeek gizonak baino sarrera gehiago dute

Emakumeen %46ak 450 eurotik gorako sarrerak ditu, baina soilik gizonen %20 heltzen da kopuru horretara.

Emakumeen artean bestelako sarrera-iturriak daude; %28ak esan du Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta edo Oinarrizko Errentaren bidez eskuratzen dituela eta %20aren iturria lana da. Gizonen artean, aldiz, %13ak esan du Gizarteratzeko Gutxieneko Errentatik (GGE) edo Oinarrizko Errentatik eskuratzen dituela sarrerak; eta beste %13 batek aitortu du kaleko jendeak emandako dirua dela bere iturri nagusia.

Orduan, sarreraren iturriak etxerik ez duten pertsonen artean sexuak egiten duen bereizketa nabarmentzen du. Gizonak emakumeak baino gehiago ibiltzen dira kalean eta emakumeenak bezain egonkorak ez diren finantza-baliabideekin bizi dira.



Iturria: EUSTAT

Seme-alabak dituzten emakumeen sarrerek seme-alabarik ez duten emakumeenak baino iturri anitzagoak dituzte; izan ere, azken hauek dira laguntza publiko eta senideen laguntza gehiago eskatzen dutenak. Halaber, azpimarratzekoa da seme-alabak dituzten emakumeek lanetik eratorritako sarrera-iturri bat mantentzeko joera izaten dutela, seguruenik finantza-beharrian handiagoak dituztelako. Jasotako sarrerei dagokienez, seme-alabak dituzten emakumeak dira berriz (horien egoera gorabehera) sarrera gehiago jasotzen dutenak eta, beraz, ekonomikoki seme-alabarik ez duten emakumeak baino burujabeagoak direnak.

Emakumeak gizonak baino pozago daude gizarte-zerbitzuekin

Gizonen %42ak esan du nahiko edo oso pozik dagoela gizarte-zerbitzuek emandako zerbitzuarekin; emakumeen kasuan poztasun-maila hori %71koa da.

Ettxerik ez duten pertsonen egoera latzak bizi izaten dituzte eta, ondorioz, batzuetan pertsona hori atxilotua izaten da (%35). Izan ere, atxilotuak izan diren gizonen kopurua (%41) emakumeena (%16,5) baino handiagoa da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morán

Tel:+34-945-01 75 35 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es